



Ortugurentxo etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Órtuntxo

“... la casería rústica titulada Ortugurenchu... situada en la barriada de Andiconá jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende con su zaguan horno y huertecita ochenta y ocho estados cuadrados superficiales de cabida, la que es de una habitación, y se compone de piso bajo y entresuelo, con sus correspondientes cuadras y divisiones...”
DJE 2/27 or. (1866)



43° 11' 22"

2° 35' 17"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Ortuguren (**Ikus Ortuguren**) baserriaren ondoan eraikitako baserriaren lehendabiziko aipamena 1825. urtean aurkitzen dugu: *Ortugurencho* (PE/1825). Ia aldaketarik gabe erregistratuko da dokumentazioan XIX. eta XX. mendeetan: *Ortugurenchu* (1866) DJE, 2/ 23. or.), *Ortugurencho* (1910) BUA, RU) eta *Ortugurencho* (1967) BUA, CE). Ahozko transmisioan, *Órtuntxo* forma erabiltzen dute auzotarrek.

Jatorrizko baserria zaharragoa zen, baina gaur egun dagoena 1946an berregindakoa da, inskripzio batek ondo adierazi moduan. Pisu bi eta ganbaradun etxea da, ondoan beste eranskin bat daukana. Etxea bera oso modu orekatuan dago antolatuta. Lehenengo bi solairuak, hiru ardatzen arabera antolatu dira, hau da, sarrerako atea erdian eta alboetan leiho bana.

Goikoan, eskema bera jarraitzen da, baina hormigoizko balkoia duela erdian. Eskumako eranskinetan egurrezko dintela duen atarte bat dago, eta gainean, lerrokatu barik, balkoia.

Baserria jasotzeko materialtzat harria erabili zuten, eta harlangaitza, aldiz, hormetan, juntura markatuekin; harlanduaz baliatu ziren, azkenik, kantaletan. Aparte aipatzekoak dira leihoburuak, dobelekin eginak. Bi isurkitako teilatuak babesten du etxea, eta ardatza albo batera dauka. Etxearen eskemak XVIII. mende amaierako ohiko egiturari erantzuten dio, baina inskripzioak argi uzten du noiz konpondu zen: *“REEDIFICADO / POR / PEDRO ARIÑO / Y / LUISA LOROÑO / CONSORTE / AÑO 1946 / ORTUGURENTXO”*.

toponimia

Ortuaren oparitasunaz hitz egin dugu Ortuguren sarreran (**Ikus Ortuguren**). Edertasunez edo oparitasunez aparte, kasu honetan ulertu behar dugu etxe honek ondoan zegoen Ortuguren baserriarekin lotura izango zuela. Horrela gerora egindako etxeari txo txikigarria gehitu zitzaion, bertako etxe txiki zela adierazteko.